




Ikastolako Lehendakaria, berri emaile



Kontseilu Errektoreak egindako azken bileraren berri doakizue.

Os informo de la última reunión del Consejo Rector.

KONTSEILU ERREKTOREA 2024-01-25

CONSEJO RECTOR 2024-01-25

2022AN ONETSITAKO LAN BAZKIDETZA BAT GAUZATZEA.

2022ko maiatzean Kontseilu Errektoreak lan bazkide onartu zuen ibone Arejolaleibar Lezeta prozesua ez zen gauzatu hautagaia une haretan ezintasun egoeran egon zelako. Ahobatez onartu da bazkidetza gauzatzea.

BATUKO INPLEMENTAZIO PROZESUAREN EBALUAZIOAREN DESKARGUA.

Maddalen Nafarrate BATUko berrikuntza arduradunak eta Nagore Iraola IRUTENeko zuzendariak eman dute azalpena. 2023ko martxoan Reimagine Education aholkularitzak egin zuen BATUren inplementazioaren prozesuaren ebaluazioa. Ebaluazio honetan ikastolako ikasle, familia eta profesionalen ordezkariak parte hartu zuten.

Reimagine Educationek Arizmendi Ikastola zoriondu egin zuen berrikuntzaren inplementazioagatik eta etorkizunean hobekuntzak txertatzeko aholkuak eman zituen. Aholku horietan oinarritu da ikastola hurrengo urteetako planak eraikitzeko.

EHI-LAB AURREAKORDIOA.

Zuzendariak azken aldian medioetan azaldu den Ikastolen Elkartearen eta LABen arteko aurre-akordioaren edukiaren azalpena eman dute. Aurre-akordioak administrazioaren titularitatepeko ikastetxeen eta Ikastoletako langileen lantsarien ekiparazioa jasotzen du. Aurre-akordioak jasotzen duena zentzuzkoa ikusi da, batetik ekiparazioa Eusko Jaurlaritzatik jasoko dugun finantziarioarekin lotzen delako eta bestetik, Ikastolentzat oso garrantzitsuak diren beste atal batzuk ere jasotzen dituelako, Ikastolen egonkortasunari eta etorkizunari lotutakoak. Otsailaren batean egingo den Ikastolen Elkartearen batzarrean aldeko posizionamendua adieraztea onartu da aho-batez.

ABENDUAREN 19KO BILTZAR PRESTATZAILEA ETA URTARRILAREN 16KO BATZAR NAGUSIA

Biltzar Prestatzailean parte hartzea oso murrizta izan bazen ere, aurerra eramandako dinamika oso balorazio positiboa izan zuen. Dinamikaren helburua ikastolako bazkide kolaboratzaile eta onuradunek ikastolako erronken inguruko ekarpenak egitea eta hauen parte hartzean hobekuntzak

APROBACIÓN DE INCORPORACIÓN DE UNA SOCIA DE TRABAJO.

El proceso Ibone Arejolaleibar Lezeta, admitida como socia de trabajo por el Consejo Rector en mayo de 2022, no se llevó a cabo debido a la incapacidad de trabajo de la candidata en ese momento. Se acepta unánimemente el ejercicio de la condición de socio.

DESCARGO DE LA EVALUACIÓN DEL PROCESO DE IMPLEMENTACIÓN DE "BATU".

La responsable de innovación de BATU, Maddalen Nafarrate, y la directora de Iruten, Nagore Iraola, han hecho la exposición. En marzo de 2023 la consultora Reimagine Education realizó la evaluación del proceso de implementación de BATU. En esta evaluación participaron representantes del alumnado, familias y profesionales de la ikastola.

Reimagine Education felicitó a Arizmendi Ikastola por la implementación de la innovación y dio consejos para incorporar mejoras en el futuro. En estos consejos se ha basado la ikastola para construir los planes de los próximos años.

PREACUERDO EHI-LAB.

La dirección ha explicado el contenido del principio de acuerdo entre Ikastolen Elkartea y LAB que ha aparecido en los medios de comunicación últimamente. El principio de acuerdo recoge la equiparación retributiva de los centros de titularidad administrativa y del personal de las Ikastolas. Lo que recoge el principio de acuerdo se ha visto razonable, por un lado porque vincula la equiparación con la financiación que vamos a recibir del Gobierno Vasco y por otro, porque incluye otros apartados muy importantes para las Ikastolas, vinculados a la estabilidad y al futuro de las Ikastolas. En la asamblea de Ikastolen Elkartea que se celebrará el uno de febrero se señalará un posicionamiento favorable de nuestra ikastola.

ASAMBLEA PREPARATORIA DEL 19 DE DICIEMBRE Y ASAMBLEA GENERAL DEL 16 DE ENERO

Aunque la participación en la Junta Preparatoria fue muy reducida, la dinámica llevada a cabo tuvo una valoración muy positiva. El objetivo de la dinámica fue que las personas socias colaboradoras y beneficiarias de la ikastola realizaran aportaciones sobre los retos de la ikastola y propusieran mejoras en su participación. También se destacó la importancia de que en el futuro los-as

proposatzea izan zen. Etorkizunean ikastola osatzen dugun bazkide desberdinek elkarrekin aritzeko foroak aztertzearen garrantzia ere azpimarratu zen.

Batzar Nagusiaren parte hartzea aztertu zen, aurreko urtekoekin konparatu. Lan bazkideei asistentziaren inguruko kezka helarazi zitzaizkien zuzendariei eta asistentzia derrigorrezkoa dela gogora ekartzeko eskatu zaie. Formatoari dagokionez, hobekuntzarako ekarpenak jaso dira.

2024/25 IKASTURTEAN IZENA EMATEKO ESKOLA KONTSEILUAREN PUNTUAZIOAREN IRIZPIDEAK ZEHAZTEA.

2024/2025 izena emateko prozedura Hezkuntza Sailak arautzen duela gogora ekarri zen. Otsailaren 7tik 23ra egongo da zabalik epea. Ikastolak onarpen prozesuan puntu bat esleitzeko aukera daukanez, puntu hori zein irizpideren arabera esleituko den erabaki zuen Kontseilu Errektoreak.

Ondorengo izan zen erabakia: Gurasoak **ARIZMENDI**, Koop.E.ko bazkide badira, edo ikaslea bera edo ikaslearen anai-arrebaren bat Arizmendiren titularitatepekoa den ikastetxe batean matrikulatuta badago, edo guraso bat Arizmendiko langilea bada edo gurasoa ikastola bateko ikasle ohia bada, baremazioan puntu bat emango zaio, ikastolak baldintza horietakoren bat betetzen dela egiaztatu ondoren.

BESTERIK

- Kontseilu Soziala.

Batzar Nagusian ostean eratu da KS berria. Aurreikusten diren lanen banaketa egin zen eta KSren egitekoak argitu dira. Bazara Kontseilurako ordezkariaren aukeraketaz ere aritu ziren.

- MONDRAGON.

KOOPERHAZI gure nortasun-ezaugarriak eta MONDRAGONen kooperatiba-kultura indartzeko gunea abiarazi zen eta profesionaleri bidali zitzaizkien erregistratzeko gonbidapena.

2025-2028 politika sozioenpresarialaren inguruko txostena partekatu zuen Leire Arana Lehendakariordeak.

- Ikastolen Elkarteak.

VII. Batzarraren prozesua martxan dela azaldu zen. Eztabaida prozesuaren helburua datozen urteetan Ikastolen Elkarteak Euskal Herriari egin beharreko ekarpenaren inguruko ikuspegi estrategikoa zehaztea da. Ikastoletan kontraste prozesuak abian jarriko dira otsailaz geroztik eta ekainaren 22an ikastolen ibilbide estrategikoa markatuko duen VII. Batzarra egingo da. Gaia gure ikastolan bideratzeaz eta lantzeaz Bazara Kontseilua arduratuko da.

Bestalde, Kilometroak 2024ren antolakuntza martxan da Azpeitin. 2025ekoa Urretxuko, Legazpiko eta Elgoibarreko ikastolek antolatuko dute.

Azkenik, Kilometroak Kultur Elkartearen Lehendakaria, EHiko artezkaritza kontseiluan gure ikastolaren ordezkaria den Alaitz Perez de Arenaza izango dela jakin arazi zen.

diferentes socios-as que formamos la ikastola compartamos foros de actuación.

Se analizó la participación de la Asamblea General, comparándola con las del año anterior. Se traslada a los directivos la preocupación por la asistencia a las personas socias de trabajo y se les pide que recuerden que la asistencia es obligatoria. En cuanto al formato, se han recogido aportaciones para la mejora..

DETERMINACIÓN DE LOS CRITERIOS DE PUNTUACIÓN DEL CONSEJO ESCOLAR PARA LA INSCRIPCIÓN EN EL CURSO 2024/25.

Se recordó que el procedimiento de inscripción 2024/2025 está regulado por el Departamento de Educación. El plazo estará abierto del 7 al 23 de febrero. Dado que la ikastola tiene la posibilidad de asignar un punto en el proceso de aprobación, el Consejo Rector acordó los criterios por los que se adjudicará dicho punto.

La decisión fue la siguiente: Otorgar un punto en la baremación al alumnado solicitante de inscripción en un centro de titularidad de Arizmendi para el curso 2024/2025, si los padres son socios de ARIZMENDI, Koop.E.ko, o si el alumno o alumna o alguno de sus hermanos están matriculados en un centro de titularidad de Arizmendi, o si un progenitor es trabajador de Arizmendi o el padre-madre es ex-alumno-a de una ikastola, una vez acreditado por la ikastola el cumplimiento de alguno de estos requisitos.

OTROS

- Consejo Social.

El nuevo Consejo Social se ha constituido después en la Asamblea General. Se realizó la distribución de los trabajos previstos y se aclararon sus tareas. También hablaron de la elección de representante para el "BAZARA Kontseilua".

- MONDRAGON.

Se puso en marcha el espacio KOOPERHAZI para reforzar nuestras señas de identidad y cultura cooperativa de MONDRAGON y se envió a los profesionales la invitación para registrarse.

La Vicelehendakari, Leire Arana, compartió el informe sobre la política socioempresarial 2025-2028.

- Ikastolen Elkarteak.

Se explicó que el proceso de "Ikastolen VII. Batzarra" está en marcha. El proceso de debate tiene como objetivo definir una visión estratégica sobre la aportación de Ikastolen Elkarteak a Euskal Herria en los próximos años. En las ikastolas se pondrán en marcha procesos de contraste desde febrero y el 22 de junio se celebrará la asamblea.. BAZARA Kontseilua enfocará y trabajará el tema en nuestra ikastola.

Por otro lado, la organización del Kilometroak 2024 ya está en marcha en Azpeitia. La de 2025 la organizarán las ikastolas de Urretxu, Legazpi y Elgoibar.

Finalmente, se hizo saber que la Presidenta de Kilometroak Kultur Elkarteak será Alaitz Pérez de Arenaza, representante de nuestra ikastola en el Consejo Rector de la EHI.

A A A O O L I

1	2	3	1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29			

OTSAILA: data nagusiak

2024/02/21 Kontseilu Soziala
2024/02/29 Kontseilu Errektorea